

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko abenduak 13 · 1335 zenbakia

GABONAK IXOTU DIRA

PARTEKATU

batzuk zuretzat eta beste batzuk zurek guretzat. Elkarrekin!

2MÓ 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontatuz gero optikan kanpainaren eskupekoak



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomaturua.
Austran Institutua, Bartzelona.
Etegabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Azataporrua Kontsumo Elkarteak bide berria hasi du Errebal Plazan inauguratu duen Basagunea izeneko dendarekin. Dena dela, denda berba motz gelditzen da gunea definitzeko, produktuaz saltzeaz gain, elkargunea izatea helburu dutelako. Izan ere, hitzaldiak, sukaldaritza tailerrak, ekoizleen aurkezpenak, dastaketak etab. eskainiko baidituzte.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



LAB-eko komunikatua AYAr buruz

Luzaroan salatu dugun bezala, eta 2024/10/24ko 233/2024 zenbakidun epaiak berresten duen bezala, Eibarko lan-arloko epaitegiak ebatzi du AYA enpresak (Aguirre Y Aranzabal), zeinaren legezko ordezkaria, juridikoa eta CEO Alex Aranzabal Minguez den, bidegabeko eta legez kanpoko kaleratzeak ordaindu beharko dituela; eta baita langileak enpresarentzat ekoizten ari ziren bitartean ordaindu gabe utzitako soldatak ere, bost langileri 200.000 eurotik gorako zenbateko osoa batuz. Era berean, lehenago adierazi bezala, enpresa utzi zuten beste hiru langilek 20.000 euro baino gehiago kobratzeko dute AYArekin aldetik oraindik.

LABek 2023ko udan deitutako greban salatu genuen AYA 4 azpitaldetan banatu izana, hainbat enpresa helburu desberdinekin zeudela argudiatuta, baina epaiak dio AYA eta Mecanizados Aguirre Y Aranzabal enpresa talde bat dela, gure grebari berriro arrazoia eta zentzua ematen diona, eta hala izan dira kondenatuak.

Horrekin batera, salaketa lotsagarria artxibatu da gure ordezkarietako baten aurrean, irain-salaketa faltsuengatik, eta horrek AYAk gerenteak bere langileen aurka izandako jarrera eta jazarpena baino ez du nabarmentzen.

Urte eta erdiko etengabeko borroken eta 10 epaiketen ondoren (guztiak LABek irabazita), zor diren soldatak eta kalte-ordainak kobratzea izango litzateke azken urratsa. Baina, epaia irmoa izan arren, enpresak ez du inolako seinalerik eman, eta ez dugu inolako zantzurik ikusi bere erantzukizun legal eta judiziala betetzeko eta egoera tamalgarri hau konpontze bidean.

Eibarko LAB sindikatua

Hortik esanak



2001ean AEB-k onartu zutenetik Txina Munduko Merkataritza Erakundearen sartzeari, Asiako erraldoia munduko fabrika bihurtu da. Mendebaldeko eliteek, etekinak maximizatzeko, deslokalizaziora jo zuten, fabrika non zegoen berdin ziolaren ustetan. Horrek bere ondorioak izan ditu: alde batetik, mendebaldeko herriak desindustrializatu egin dira, zerbitzuetan espezializatu, horrela ekonomia-aren oinarria zapuztu (pandemiaren aurrean, esaterako, finantzen eta interneten ezina argi geratu zen). Bestalde, mendebaldeko langile-klasea ere aldatu egin da eta, horrela, lan industrial egonkorren desagerpenarekin, langileak batzen zituen nortasuna ere bertan behera geratu da.

ISIDRO ESNAOLA, ekonomilaria/kazetaria

Erromak ondo erakutsi zigun inperio bat zelari erori daithekeen. Behin aberastasun puntu batera iritsita, baloreak erlaxatu egiten dira, jendeak gozamina besterik ez du buruan, eta atzeritarrak behar dira lan egiteko. Familiarekin gauza bera gertatzen da: aitona-amonek fortuna egin ondoren, gurasoak eusten saiatzen dira, eta seme-alabek eta bilobek guztia xahutzen dute. Jendeak ahaztu dezala Mendebaldearen handitasuna berreskuratzeari: eustea besterik ez zaigu geratzen, El Alamon bezala, badakigu eta hau ez dela ondo amaituko. Zibilizazio guztiek dute euren gainbehera, eta hori egokitu zaigu guri. Teknologian aurreratu dugun guztia galdu dugu humanismoan.

JUAN ESLAVA, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASMO → Zaurietako zornea. Gaztelera 'pus'. "Soldu eta pasmuz bete jata atzaparreko ebagixa".

PATRIFILIUAK EGIN → Egin beharrekoak aitaren baten, di-da, egin. Gaztelera 'en un santiamén'. "Patrifiliuak egin detsaguz honi be eta bakia aldi baterako".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 14
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 16
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ BETI , 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Antonia Lucas Fernandez.**
91 urte. 2024-11-29.
- **Beatriz Urien Areitio birtxinaga.**
88 urte. 2024-11-30.
- **Ildefonso Pancorbo Rodriguez.**
67 urte. 2024-12-02.
- **Luis Fernando Hurtado Ordas.**
75 urte. 2024-12-03.
- **Rosa Ugalde Atxa.**
66 urte. 2024-12-10.



Avanza enpresako beharginek greban jarraitzen dute, hitzarmen berria lortzeko

Avanzako (lehen PESA) Enpresa Batzordeak (6 ELA, 6 UGT, 1 LAB, 1 Aurrera) bost eguneko greba deitu du abenduan, 5, 9, 20, 21 eta 22rako, hitzarmenaren negoziazioa desblokeatzea eskatzeko, eta aurreko astean manifestazioa egin zuten Eibarren. Sindikatuetatik salatu dutenez, “ia bi urte igaro dira negoziazioak hasi zirenetik, eta ordutik ez da aurrerapausorik eman hitzarmen berria lortzeko”. Aldarrikapen nagusiak honako hauek

dira: 35 orduko lanaldia ezartzea (Bizkaibuseko zerbitzuetan bezala); bermedun KPIaren arabera soldata igoerak izatea; errelebo kontratuak ezartzea; behin-behineko langileentzako lan poltsa bat arautzea; eta hartzeko eta uzteko denbora kontuan izatea. Horrez gain, autobus flotaren egoera txarra salatu du batzordeak, horrek bai langileak bai zerbitzua erabiltzen dutenak arriskuan jartzen dituela azpimarratuz.

Udalaren merezimendurik handiena jasoko du gaur Eibarko Klub Deportiboak

Gaur arratsaldean, 19:00etan udaltxeko batzar aretoan hasiko den ekitaldian emango dio Udalak *Txopitea eta Pakea* saria Eibarko Klub Deportiboari, “haren mendeurrenaren eta herriaren garapenean eta proiektzioan egindako lanaren aitortza gisa”. Coliseo parean dagoen Jorge Oteizaren eskulturaren errepika den sari hau Eibarko herritar

edo elkarte garrantzitsuenei ematen zaie bakarrik, merezimendurik handiena da eta: “Dedikazioaren, esfortzuen eta Eibarrekiko konpromisoaren balioak goraiatzeko ezarri zen, eta esanahi berezia hartzen du elkarte honi ematerakoan. Izan ere, kirolaren bidez, Deportiboak nazio mailako eta nazioarteko esparrura eramanez baitu herriaren izena”.

Bihar arratsaldean ezin izango da Ipuruako igerileku estalia erabili

Bihar arratsaldean XXXV. Gabon Kopa Igeriketa Lehiaketa jokatu da Ipuruako kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara. Hori dela eta, estalitako igerilekua ezin izango da erabili. Horrez gain, Patinak Ipuruan izeneko ekimena egingo da aurrerantzean, domeketan 17:45etik 19:45era.



Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka Errebalen

Udalaren eskutik Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka egingo dute bihar Errebal Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, azokan era guztietako gauzak egongo dira salgai, eta gainera haurrentzako bi tailer eskainiko dira, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak sortzeko. Tailerretako bat 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat da, eta bestea 7 urtetik gorakoei begira antolatu dute. Tailerrak 11:30ean hasi eta 14:00ak inguruan amaituko dira, eta 25 minutuko iraupena izango dute. Plazak mugatuak direnez, bost txanda egongo dira aukeran, 11:30etik 13:30era, eta txanda Errebalen bertan erreserbatuko da.



Immigrazioak izango ditu hizpide Jon Maiak sorpresaz betetako solasaldian

Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira, Jon Maia bertsolari eza-gunak *Atzoko eta gaurko migrazioak* izenburuko solasaldia gidatuko du egunean, abenduaren 19an, 19.00etan, Coliseo antzokian. Jatorri anitzeko eibartarrek ere hartuko dute parte ekimenean, eta sorpresa ugari iragarri dituzte: bertsolariak, rap-kantariak, Clownklusioak Oihulari Klownen eskutik... ZAS! Zurrumurruen aurkako sareak eta Immigrazio eta Kultura Aniztasunaren alorrak antolatu dute eta sarrera libre da.



Eibarko Artisten Elkartekoak Sevillan egon dira

Eguraldia lagun zutela, ondo baino hobeto ibili ziren Artisten Elkarteak antolatutako bidaiak kulturala egitera animatu zirenak. Azaroaren azken astean hiru egun eman zituzten bertan.

Herritarren omenaldia jasoko du gaur Kontxa Laspiurrek Ipuruako merkatu plazan

Euskararen alde bitziza osoa eman duen Kontxa Laspiur Zabalarri omenaldi herrikoia egingo diote gaur Ipuruako merkatu plazan, 18:00etan. Dena dela, Kontxari sorpresa eman nahi diote, eta horregatik berari ezer ez esateko eskatu dute antolatzaileek. Ekitaldian dokumental laburtuaren proiektzioa (ahotsak.eus), "Lehenago eta oraingo euskararen saihezbideak" (Xabier Amuriza), bertsoak (Trunboi eta Mikel Arrillaga) eta dantzak (Kezka dantza taldea) eskainiko dituzte, eta ondoren oroigarriak banatuko dizkiote omenduari. Amaieran pintxoak egongo dira, eta nahi duten guztiek izango dute bertaratzeko aukera.

Besteak beste, AEK euskaltegian euskara irakasten aritu zen Kontxak 100 urte bete berri ditu, San Andres egunean, eta egun batzuk lehenago Coliseo antzokian jaso zuen Gure Balioak Saria, Bizitza Osoko Ibilbidea atalean.





Udal gobernuari mahai bat osatzea proposatu dio EH Bilduk

Aurreko astean egindako agerraldian adierazi zuten bezala, Eibarko EH Bilduk lau zutabetan oinarritutako akordio politikoa eskaini dio udal gobernuari, “aurrekontuaren negoziazioaren atarian gaudelako, eta zenbait gairen inguruan akordio bat lortzea beharrezkoa ikusten dugulako”. Aipatutako lau zutabeak “egoera bereziki larriari” dauden hauek irateke: etxebizitza, hezkuntza, zaintza eta sozioekonomia. Proposamen horretan puntu nagusienetarikoa etxebizitza politika da Bildurentzat: “Etxebizitza bat eskuratzeko, izan alokairuan edo jabetzan, eragin zuzena du herritarren zein familien egoera ekonomikoan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu molde eta tipologia ezberdinetako etxebizitzaren eskaintza publikoa egitea”. Zaintzaren problematikari ere garrantzi handia eman diote: “Zaintza behar objektiboa da, baina eskubide unibertsala izan behar lukeena pribilegio bilakatu da, urteetan garatu diren politika pribatizatzaileak direla eta.

Instituzioek honi erantzuteko eta neurriak hartzeko erantzukizuna daukagu. Beharrezkoa zaigu, alde batetik, urgentzia batzuei erantzutea eta, bestetik, bestelako zaintza eredu bati bide ematea”. Hezkuntza formalaz gainera, sistema ez formal eta informala ere aztertu beharke lirategiela uste dute, “eta, era berean, arreta eskaini hezkuntza prozesuaren osagarri diren gaitzarako eragile, espazio eta dinamikei. Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, hezkuntza teknikari baten beharra ikusten dugu”. Eta, amaitzeko, Lanbide Heziketarekin elkarlana burutzea oso garrantzitsua dela diote, “industriari dagoen lan eskaintzari erantzuteko beharrezko formakuntzak garatzeko. Bestalde, herrian zehar dauden lokal hutsten arazoari erantzun bat eman nahi diogu, merkaturatzeko erraztasunak emanez. Lehen sektorearen premiazko belaunaldien arteko erreleboa landuko dugu, ekintzaileentzako azpiegiturak eta baliabideak jartzeko proposamenak eginez”.



Palestinarekin Elkartasun Eguna antolatu du Kontseilu Sozialistak

Deba Bailerako Kontseilu Sozialistak antolatuta, domekan (abenduak 15) Palestinarekin Elkartasun Eguna egingo da Eibarren. Elkartasun egunerako prestatu duten egitaraua goizetik hasiko da: 10:00etatik 13:00era bitartean dastaketa eta haurren jolasak egingo dira, Errebal Plazan. Eta 13:00ean Palestinari elkartasuna adierazteko talde argazkia aterako da.



Garagunekoek egindako eskulanak eta apaingarriak salduko dituzte eguazten goizean

Beste urte batzuetan bezala, Goienetxe Fundazioaren Garagunekoek salmenta-mahaia ipiniko dute, urtean zehar egindako eskulanak eta Gabonetarako apaingarriak saltzeko. Asmo horrekin eguaztenean Untzagan egongo dira, 10:00etatik 14:00etara, Guridi tabernaren aldamenean.



Basagunea kontsumo ekologiko eta hurbilerako gunea zabaldu dute Errebalen

Azataporrúa Kontsumo Elkar-teak bide berria hasi du Errebal Plazan inauguratu berri duen Basagunea zabaltzearekin batera. Denda hutsa izatetik haratago, elkargunea izatea nahi dute, eta asmo horrekin hitzaldiak, sukaldaritza tailerrak, ekoizleen aurkezpenak, dastaketak etabar eskainiko dituzte. Orain artekoarekin konparatuz gero, lehen ez bezala, orain bazkide izan barik ere den-dan erosteko aukera dagoela da

aldaketarik nabarmenena. Errebal Plaza barruan, baseritarren aldamenean dagoen Basagunea astelehenetik zapatara arte egongo da zabalik ordutegi honekin: astelehen, eguazten eta eguenetan, 17:00etatik 20:00etara; eta martitzen, barixaku eta zapatuetan, 10:00etatik 13:30era. Aurreko astean egin zuten Basagunearen inaugurazio ekitaldia, eta herritar ugari gerturatu zen, gune berria bertatik bertara ezagutzeko.

Artisau eran egindako ogiari eskainitako topaketa egingo da bihar Errebal Plazan

Artisau erako ogi ekologikoa-HoB-Bea proiektuaren inguruko jardunaldia egingo da bihar Errebal Plazan, goizeko 10:00etan hasita: Sosola baserriko Aizpea Izagirre artisau-okinak ongietorria egingo die bertaratzen diren guztiei, Errebal Plazan. Gainontzeko jarduerak, berriz, Errebal Plazaren goialdean dagoen aretoan egingo dira (17:00ak aldera amaitzea aurreikusitako dute).



Amañako Jaietako Sanandresetako otarra Sasinka Astarloarentzat

San Andres egunean, urtero lez, 14:30ean zozketatu zen Amañako Jaietako Batzordeak jokoan ipintzen duen otarra Sasinka Astarloa Ruano "El Ruso" ermuarraren eskuetara joan zen oraingoan, bera izan baitzen irabazle. Jakina, otar ondo betea eraman zuen zortedunak, bertan hainbat egunetarako janari gozoak biltzen ziren eta: otarrainxkak, kokotxak, legatza, almejak, gulak, olagarroa, arkumea, txuletak, urdaiazpikoa, gazta bat, zainzuriak, piperrak, pateia, atuna, saltxitxoi bat eta ezkur-txorizo bat behintzat bazeudelako.



Elkartasun zozketako lehen saria Eibarren saldu da, seguruen Arrateko jaietan

Ernai gazte antolakundeak antolatutako Elkartasun Zozketako lehen saria, Irlandara bi lagunentzako bidaia, 32.451 zenbakiari egokitu zaio. Esan dutenez, zenbaki hori Eibarren saldu da, "seguruenik Arrateko jaietan". Bigarren saria 19.850 zenbakiarentzat izango da, eta hirugarrena 14.064 zenbakiarentzat. Ordezko zenbakiak 29.751, 28.856 eta 7.985 dira, hurrenez hurren.



Aurreko hilean egindako Udalbatzera joan aurretik, Untzagan elkarretaratzera egin zuten.

Neguko dispositiboa berriz zabaltzeko eskaera egin diote Udalbatzari

Azaroaren azken egunetan aurkeztu zuten pataforma, eta sortu bezain laster Eibarko Udalera jo zuten, bertan egindako Osoko Bilkuran neguko dispositiboa berriz martxan jartzea eskatzeko. Bertan jaso zuten erantzuna ikusita, Jon Iraola alkateari idatziz zuzendu zatzaizkio, egoeraren aurrean zer pentsatzen duten argi eta garbi esateko. Diotenez, pobrezia eta bazterketak, gainerako arazo sozial handiek bezala, jatorri estrukturala dutela jakin badakite, eta arazoa korapilatsua dela: “Desberdintasunak erreproduzitzen eta legitimatzen dituzten egiturazko kausetan jarduteko, gizarte-adostasun zabalak behar dira eta, zoritxarrez, gaur egun ez dago horrelako ados-

tasunik. Egiturazko aldaketei uko egite behartu horren aurrean, asko gara azkenean *konponbidearen* aukera onartu dugunok, arazoak minimizatzearena”.

Erabaki onartezina

Eibarren etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen babes eta arreta emateko oinarrizko zerbitzuak eskaintzen zituen neguko dispositiboa abian ez jartzeko “Iraola jaunak hartutako erabakia onartezina” dela diote, “arrazoi askorengatik: Udalaren eskumena delako, nahiz eta eskualdeko hartzarmen baten bidez kudeatu; gizarte-zerbitzuen zorroa betetzen ez delako; hiritarrei elikagaietarako, sabairako, oherako, erreko-

Etxegabetasun-egoeran zeuden pertsonen azken hiru urteetan babes eta arreta emateko oinarrizko zerbitzuak eskaintzen zituzten neguko dispositiboaren itxierari erantzuteko, END izeneko plataforma eratu dute gaiarekin kezkatuta dauden hainbat herritarrek. Helburua argi eta garbi daukate: etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen kalean lo egin behar ez izatea.

nozimendurako, entzumenerako, edo horren politiko eta gizatiarra den besarkada bat, edo esku lagun bat bezalako zerbait izateko eskubidea ukatzen dien elkartasun falta larria erakusten duelako; eta dispositibo hori martxan jartzeko gaur egun dagoen oztopo bakarra, Iraola jauna, zu zarelako. Hala da, Iraola jauna, zeuk eragotzen duzu dispositiboa martxan jartzea”. Plataformako kideek esandakoari jarraituz, eskualdeko gainerako alkateek bestelako jarrera agertu dute gaiari buruz komunikabideetan galdetu dietenean. Beraien berbetan, “egiturazko aldaketak egiteko adostasun sozialik ez dagoela onartu dezakegu, baina ezin dugu onartu gizarte-politiken onurak onartzeak dakarren gutxiengo politikari erakundeetatik uko egitea. Eta zuk, alkate jauna, ez bata ez bestea, ez egiturazko aldaketarik, ez eta premiazko esku-hartzearen eraginkortasunik ere. Oso larria iruditzen zaigu udalak gizarte-politiken inguruko gutxiengo gizarte-adostasun hori haustea”.



Fakturaren atalak

KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK

FAKTURAZIO DATUAK

KOSTUEN LABURPENA ETA GUZTIRA

KOSTUEN LABURPENA

- Kontsumitako energia
- Potentzia
- Zergak
- Zerbitzuak
- BEZ



KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK

- Titularra
- Horniduraren helbidea
- Kontratutako potentzia
- Kontratuzenbakia
- Kontratuaren amaiera data

FAKTURAZIO DATUAK

- Faktura zenbakia
- Fakturazio periodoa
- Fakturatutako egunak
- Emisio data
- Epe muga
- Kobratze data
- Kontu korrontea

POTENTZIA

ENERGIA TERMINOIA

BONO SOZIALA

ZERGA
ZERGA ZERBITZUAK
BEZ

HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA



BONO SOZIALA

Bonu sozial elektrikoa baliabide gutxiago familiei laguntzeko neurria da, energia merkeago saltzen baitzaie. Gaur egun, energiaren sektoreko enpresa guztiek (banatzaileek, ekoizleek eta merkaturatzaileek) ordaindu behar dute; beraz, kontzeptu hori fakturretan kontzeptu gisa sartu da edo tarifetan txertatu da.

ZERBITZUAK

Kontagailuaren alokairua behar den zerbitzu bakarra da, eta kontagailurik jabetzan ez dagoenean agertzen da. Prezio arautua du. Merkatu librean ohikoa da beste zerbitzu batzuk kontratatzea; benetan beharrezkoa den baloratzen du, eta behar ez badu, baja eskatzen du kosturik gabe inoiz egin daitekeen berrikusi ondoren.

HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA

CUPS: Hornidura-puntuaren kode bateratuak argi eta garbi identifikatzen du instalazioa.

Kudeaketa Aurreratuaren Diploma jaso du ...eta kitto!-k

Abenduaren 11n, eguaztena, Kudeaketa Aurreratuaren diploma jaso zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Bilboko Euskalduna Jauregian egindako ekitaldian. 2022an sortu zen euskal hedabideei zuzendutako programa berezia, hedabideen lehiakortasuna eta kudeaketaren profesionaltasuna hobetzeko helburuarekin. ...eta kitto!-k jaso duen diploma hiru urte hauetan egindako lanaren aitortza da. EUSKALITeko Komunikazio arduraduna den Nerea Obietak zuzendu du programa, eta bere hitzetan jaso ditugu Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren nondik norakoak.

Kudeaketa Aurreratuaren ereduak ahalik eta emaitzarik onenak bilatzen ditu bai erakundearentzat bai bere interes-taldeentzat. Horrela esanda, arrotza izan daiteke eredu honetan sakondu ez duen herritar batentzat. Beraz, nola azalduko zenuke modu errazean zer den Kudeaketa Aurreratua?

Kudeaketa Aurreratua erakunde bat (txikia, handia, publikoa edo pribatua zein edozein sektorekoa) antolatze eta ulertze modua da, eta baita lortu nahi diren emaitzak denboran zehar eusteko garatzen diren ekintzen batura ere.

Ekintzarik garrantzitsuenak sei elementu nagusirekin harremantzen dira: epe luzeko ikuspegi bat sortzea, zehaztutako estrategia batekin; erakundea bezeroengana bideratzea, balio-ekarpen diferentziala eginez; erakundeko pertsonengan proiektu partekatu bateko kide izatearen sentimendua sortzea; berrikuntza eremu guztietan aplikatzea,



EUSKALITeko Nerea Obietak azaldu dizkigu Kudeaketa Aurreratuaren gakoak.



eraldaketa-palanka gisa; gizarte-erekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa sustatzea; eta nola ez, emaitza onak lortzea interes-talde guztientzat, modu orekatuan. Horrela laburbildu daiteke Kudeaketa Aurreratua erreferentetzat haritzeak esan nahi duena.

Zu izan zara euskal hedabideekin Kudeaketa Aurreratuaren eredu lantzeko arduraduna. Nola sortu zen ideia edo beharra?

2022an sortu zen euskal hedabideei zuzendutako programa berezia, beti ere hedabideen lehiakortasuna hobetzeko grinarekin, zein kudeaketaren profesionaltasuna hobetzeko helburuarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta sortu zen, baina laster gainontzeko Aldundiak batu ziren, eta horiekin batera Hizkuntza Politika Saila. EUSKALIT bidelagun izan da urte hauetan zehar; hedabideen abiapuntuko garapen mailetara egokituz (oinarrizkoa edo aurreratua), hiru urteko pro-



...eta kitto! Euskara Elkarteko kideak Euskalduna Jauregian egon ziren eguaztenean Kudeaketa Aurreratuari Diploma jasotzen. Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariaren Ekitaldian brontzezko, zilarrezko eta urrezko sari nagusiez gain, aurten EAEko 54 erakundek jaso dute Euskaliten diploma.

grama planteatu genuen, azkeneko urtean kanpo kontrastea jaso eta, baldintzak betez gero, Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortzeko asmoz, gure Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariaren eskemako lehenengo urratsa alegia.

Nolako harrera izan du hedabideen artean? Zenbatek hartu dute parte?

Oso harrera ona izan du. Guztira hiru lurraldeetako 31 hedabideek parte hartu duzue; tokiko hedabide gehienak gipuzkoarra izan dira. Kontuan hartu behar da hedabideen egoera ez dela berdina izan, bai tamaina bai kudeaketa-sistemaren garapenak oso anitzak izan direlako.

Formakuntzaren ostean eta erakunde parte-hartzaileek Kudeaketa Aurreratuan aurrera egiteko pausoak eman eta sistematizatu ostean, horietako batzuk kontrastea egin dute, ezta? Zertan datza kanpo kontrastea?

Kanpo kontrastea, erakunde bateko

>>> "Erakunde bat (txikia, handia, publikoa edo pribatua zein edozein sektorekoa) antolatze eta ulertze modua da Kudeaketa Aurreratu"

>>> "2022an sortu zen euskal hedabideei zuzendutako programa berezia, beti ere hedabideen lehiakortasuna hobetzeko grinarekin"

zuzendaritza taldearen eta kudeaketa gaietan adituak diren EUSKALITen Ebaluazio klubeko kideen arteko goiz bateko hausnarketa da, zalantzak argitzeko eta kudeaketa sistema hobetzen laguntzeko.

Hortaz, kontrastearen helburua da erakundeak gauzak nola egiten dituen, zein emaitza lortu dituen eta etorkizunean zer lortu edo egin nahi duen aztertzen laguntzea. Haus-

narketa hori egiteko, zuzendaritza taldeentzat oso onuragarria izaten da kanpoko pertsonen laguntza jasotzea, erakundearen kudeaketa berrikusten eta hobetzen laguntzeko. **Hiru urteko prozesua eta gero, nolako izan da kontrasteetarako erantzuna? Zenbat hedabidek jasoko dute aintzatespena aurten?** Askok oso tamaina txikia dutela aintzat hartuta, pertsona baka-



...eta kitto!-rekin batera beste lau hedabide/erakunde eskuratu dute diploma: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Irutxulo Hitza, Aiurri eta Aiaraldea.

>>> "Guztira hiru lurraldeetako 31 hedabidek parte hartu dute; tokiko hedabide gehienak gipuzkoarrak izan dira"

>>> "..eta kitto!-ren kasuan, dudarik gabe, lantaldearen lana eta konpromisoa nabarmenduko nituzke"

rreko hedabideak parte hartu izan dutelako adibidez, guztiek ez dute Diplomaren azkeneko helburua betetzeko egoera aproposik izan, ezinezkoa baitzen hasieratik. Baina baldintzak betetzen zituzten heda-

bideen artean erantzun positiboa izan du, dagoeneko 10ek Diploma jaso izan duzuelako: hiruk joan den urtean, eta aurtan zazpik lortuko duzue. Dena den, nahiz eta aintzatespenik jaso ez, orokorrean, kudea-

keta sistemetan aurrera egin dela esan dezakegu, eta bidean dauden askok hurrengo urtean kontrastea jasotzeko konpromisoa agertu dute.

...eta kitto!-ren kasuan zer nabarmenduko zenuke alor positibo moduan? Eta etorkizuneko aukera moduan?

Dudarik gabe lantaldearen lana eta konpromisoa nabarmenduko nituzke. Programa hasi baino lehen bazezgoen lan asko eginda, bai hausnarketa estrategikoak egiten zirelako, bai bezeroen nahiak eta beharrak kontuan hartzen zirelako horietara moldatutako zerbitzuak eskainiz. Beraz, programan parte hartzea onuragarria izan dela uste dut, bultzada ekarri duelako kudeaketaren sistematizazioan, eta etorkizunera begira EUSKALITen aintzatespen eskeman hurrengo urratsei ekitea berez etorri daitekeen zerbait izan daitekeelako.

Ez itxaron gehiago, Gabonak hasi dira

Bai, pare bat aste falta dira Mari Domingi eta Olentzero gurera etortzeko, baina ezin dugu ukatu Gabonetako espiritua gurera iritsi dela dagoeneko. Kaleak argiekin apaindu dituzte, Gabonetako dekorazioa dugu nonahi eta urteko sasoi berezi honetara begira antolatutako ekintzak hasi dira.

Jadanik ez dugu San Andres bezperara itxaroten eta azaroaren 27an piztu zituzten Gabonetako argiak herriko kaleetan. Oso sasoi berezia da herritar askorentzat eta, bereziki, herriko merkatari eta ostalarientzat “establezimenduei salmentak hobetzeko aukerak ematen baitie”, Gabonetako kanpainaren aurkezpenean adierazi zuten.

Gabonetarako antolatu diren jarduerekin bizitasuna eta kolo-rea eman nahi diote herriari eta, horretarako, mota askotako ekintzak prestatu dituzte. Hasteko, bihar bertan Gabonetako bigarren eskuko azoka egongo da Errebal Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Herritarrek aste honetara arte izan dute izena emateko epea eta euren produktuak jarriko dituzte salgai bertan. Gainera, 11:30etik 14:00etara Gabonetako apaingarriak material birziklatuarekin egiteko tailerra egingo da. 25 minutuko bost txanda egingo dira, eta



3 urtetik aurrerako jendeak hartu ahal izango du parte.

Gabonetako beste azoka esan-guratsu bat Eibart izaten da, artisauen azoka. Aurten 20. edizioa beteko du eta hilaren 18an zabalduko ditu ateak, urtarrilaren 5era arte (abendua-ren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da), 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Honako artisauek jarriko dute postua Eibart azokan: E. Mendi, Pablo Tramanduart, Eskusutxo, Bitxikool, Eskune, Zugehina, Isabel Orozko eta Hartara.

Haur parkea, barrakak eta txirrista

Ia guzti ontzat izaten dira bereziak Gabonak, baina umeentzat beste zerbait gehiago da. Neguko oporrak izaten dira eurentzat eta magiaz beteriko egunak bizi izaten dituzte. Horrela, joan den astean zabaldu zuten Gabonetako Haur Parkea eta abenduaren 14an, 21ean, 26an, 27an, 28an, 30ean eta 31n, eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an ere zabalik egongo da 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era (hilaren 31n 11:00etatik 14:00etara bakarrik). Sarrerak 3 euro balio du (dohainik Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin) eta 90 minutuz egon ahal izango da parkean.

Barrakak ere ez dira falta herriko zenbait puntutan (Txaltxa Zelaian, Urkizun eta anbulatorio pareko parkean), baina aurtengo nobedadea Untzagan jarriko duten txirrista izango da (umeentzat eta helduentzat). Abendua-ren 20tik urtarrilaren 6ra arte egongo da eta honakoa izango da



Gabonetako argiek herriko kaleak girotzen dituzte egunotan.

>>> Gabonetako plater nagusia hilaren 24an iritsiko den arren, asteburu honetatik aurrera hainbat ekintza egingo dira

ordutegia: abenduak 20 eta urtarrilak 6, 17:00etatik 21:00etara; abenduak 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 30, eta urtarrilak 2, 3 eta 4, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; abenduak 24 eta 31, eta urtarrilak 5, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era; eta abenduak 25 eta urtarrilak 1 itxita egongo da.

Selfie lehiaketa

Aurtengo beste berritasun bat 'Gabonak Eibarren' selfie lehiaketa



Erregeak izango dira protagonista urtarrilaren 5ean.

izango da. Lehiaketaren helburua Instagram eta Facebook bidez Gabonetan (abenduaren 31ra arte), Eibarko kaleak eta Gabonetako argiak atzean ageri diren selfien irudiak zabaltzea eta hedatzea da. Irudi edo selfie horiek #gabonakei-barren traolarekin Instagramen edo Facebooken argitaratu behar dira, eta @eibarkoudala aipatu behar da. Ekimen horrekin, halaber, herria bera dinamizatu nahi da, eta haren gaitasun komertziala eta zerbitzu-arlokoa indartu.

Sariari dagokionez, tokiko produktuen otar bat, 'Coliseoaren laguna 2025' bi txartel eta Erosi Eibarren txartelak emango dituzte, guztiaren balioa 500 eurokoa izango delarik.

Musika eta dantza emanaldiak

Gabonetan musikak eta dantzak ere tokia izango dute. Kontzertuei dagokionez, Cielito Musika Bandak kontzertua emango du hilaren 15ean, 12:30ean, Coliseon;

>>> Untzagan jarriko duten txirrista eta selfie lehiaketa izango dira aurtengo berritasunak

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek hilaren 17an eta 18an, 18:30ean, Coliseon eskainiko dituzte emanaldiak; eta Usartza Txistulari Bandak, J. B. Gisasola eskolako txistu, perkusio eta metal ikasleekin, ikuskizuna emango du hilaren 22an, 12:30ean, Untzagan.

Dantzei dagokionez, KAXA sormen gunekoek hilaren 19an, 18:00etan, Errebalen eskainiko dute emanaldia; eta KOA-koak hurrengo egunean arituko dira, 20:00etan, toki berean.

Mari Domingi eta Olentzeroren eta Erregeen kalejirak

Aipatutakoa gutxi balitz, plater nagusia Mari Domingi eta Olentzerorekin iritsiko da. Ohiko lez, 24an iritsiko dira gurera eta eurekin abesteko aukera izango dugu 11:30etik Urkizutik hasiko den kalejiran. Gero, 12:30ean, umeen azken eskutitzak udaletxean jasoko ditu, baina azken unera arte itxaron nahi ez baduzue, gaurtik aurrera Olentzeroren buzoia Pegoran eta Portalean jarriko dute.

Erregeen txanda urtarrilaren 5ean iritsiko da. 17:00etan Eibarko Nele Dantza eskolakoek, Ballet Eibarresekoek, KAXAkoek, KOAkoek eta Ipurua gimnasia erritmikokoek emanaldia eskainiko dute Ipurua kiroldegian (gonbidapenak hilaren 20an, 09:00etan, banatuko dituzte Portalean), eta 19:00etan Erregeen Kabalgata egingo da herriko kaleetan zehar. Ondoren, erregeek umeen azken eskutitzak jasoko dituzte.

18 SANANDRESAK

Eguraldia lagun, milaka lagun irten ziren kalera Eibarren San Andres jaiak ospatzera. Nekazarien azoka, animalien erakusketa, dantza, musikak... Denetik egon zen goizetik gauera arte jaiaz gozatzeko.

Bideoak gure YouTube kanalean ikusgai



Argazki gehiago gure webgunean



SILBIA HERNANDEZ



EKHI BELAR



PEDRO ELIZONDO



Gabonetako
erosketa gida

#EibarrenBadakagu

#EibarrenBadakagu



Urkizu, 3
943 04 11 86
688 876 518
www.ludotekazorionak.com
jugueteriazorionak@gmail.com

TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



Laguinda

Zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 18
943 20 84 41



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentro naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua



Zuloagatarren, 1
943 82 15 77

Zorionak!





J. Etxeberria, 6
656 73 21 54

- Denda familiarra
- Urtebetetik L neurriraino



**GU
BY**

zorionak!

Zuloagatarren, 9
943 20 12 40
Birjiñape. 1
943 20 28 33



XARE

Zuloagatarren, 1
943 53 67 64
xareibar
www.xareibar.com



Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



Gizon eta emakumeendako barruko arropak
Pijamak eta batac... Bereziatasuna taila handietan!

atelier11

T. Etxebarria, 2
688 68 16 04

CONCEPT STORE



#EibarrenBadakagu

F. Calbeton, 22-24 behea eskuma
📞 603 344 258 - 943 38 61 97



**Manikura
Pedikura
Betileak**

klaus Denda Dekorazioa
Erreformak Proiektuak

Estaziño, 3 648 035 528  klauseibar



umea



Errebal, 16 943 20 31 64

Jauregui San Agustin, 4
943 20 16 47

Menajea - Beira - Opariak



**Jerónimo**
Jostailu-denda

Fermin Calbeton, 5
943 20 10 14

Jostailuak eta
Otik 99 urtera
arteko jokoak

Zorionak!



CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es  

AURPEGI TRATAMENDU BERRIA

Kolagenoa eta elastinaren sortzea
SUSTATZEN DU

Azalaren sendotasuna eta elastizitatea
HOBETZEN DITU

Zimurdurak eta espresio-lerroak
GUTXITZEN DITU



SKIN TOUCH
BERMA TECH

 **BETILE LUZAPENAK / LIFTING**

Kopina San Agustin, 3
943 20 41 81



Twins

zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

www.twinseibar.com

f twins_eibar i twinseibar



BEITTU J. Etxeberria, 13
AUDIOPTIKA 943 70 02 30

zentro optikoa

Hemen gaude zu zaintzeko

Gabonetako opariak



Mel Ash

GAZTE MODA

Denda berria

Bidebarrieta, 16 634 65 33 87



#EibarrenBadakagu

Zergatik erosi herrian?

Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako
- 4 Komunitatea indartzen dugulako

eskatu, erosi euskaraz!

Euskeraz primeran!





Hiru puntuak etxean geratzea lortu zuten Casino Artista Eibarres-eko billaristek

Aurreko asteburuan Casino Artista Eibarres klubaren lokaletan jokatutako partiduan, eibartarrak hiru punturekin geratu ziren, aurten estreinatu duten 2. Maila Nazionalen lehenengoko garaipena eskuratu zuten. Saillapenean berdinduta zeuden Madrilgo taldekoei 3-1 irabazi zieten Casinokoek. Laugarren jardunaldi horretan, Ricardo Robles eta Jon Alberdirekin batera,

txapelketan debutatu zuten Sergio Boullusak eta Ricardo Ereñak osatu zuten Eibarko taldea.

Emaitzei dagokienez, Rikarrek 40/37 galdu zuen, beste hirurek irabazten zuten bitartean: Sergiok 26/17, Imanolek 34/30, azkenean Ricardok 40/35 garaipena etxean lagatzeko. Aretoa beteta egon zen Casinoko historiarako geratuko den garaipenean.

Ipuruako gimnastak podiumetik jaitsi barik dabilta

Asteburuan, esaterako, Gasteizko Supra Rítmica Torneoan, Ipuruako senior taldeak zilarra lortu zuen eta bakarkakoan Maddi Teranek brontzekoa. Senior mailako taldeak, gainera, beste zilar bat ekarri zuen etxera azaroaren 30ean Oviedon jokatutako Gimnasiaren Izarrak Torneoak eta, azkenik, abenduaren 8an Zaragozan lehiatu zuten Ibercaja Sarian seigarren postuan sailkatu zen gure herriko klubaren talde nagusia.

Gaur goizean eta bihar eguerdian Ipuruako senior taldeak Iruñean hartuko du parte Espainiako Taldekako Txapelketaren barruan. Eta Maddi Teran (behean) Espainiako Oinarri Kopan izango da, Nafarroa Arenan jokatuko den banakakoan.



Eibarko Kirol Sariak 29. edizioa biziko dute Coliseon Gabon Zahar egunean

...eta kitto!-k antolatzen duen Eibarko Kirol Sarietako ekitaldia ia hirugarren hamarkada betetzera doan honetan, abenduaren 31n, eta ohiturari jarraituz, 29. edizioa egingo du aurten. Bertan gure herriko kirol klubek, bakoitzak bere modalitatean, azken denboraldiari dagokion kirolaria aukeratuko dute, eguerdiko 12:00etan Coliseon saritzeko.

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

agunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Eibartarrak-Urki Erregionaleko Gorengo mailako derbia bihar Unben



Denboraldiko lehen herena atzean lagata, maila horretan diharduten gure herriko bi taldeen ibilbidea bikaina dela esan dezakegu: alde batetik, Urki lidergoan dugu, sendo, atzetik dituen Amaikak Bat (Ohorezko Mailatik jaitsi berria) eta Ordizia lau puntura dituela; eta, bestetik, Eibartarrak igo berria sailkapenaren erdialdean kokatuta dago. Orain arte jokaturako 11 partiduetan ez dute berdinketarik izan ez bata ez besteak; hori bai, Urki bederatzir irabazi dituen bi-

tartean, Eibartarrak bostetan izan da garaile. Herriko derbi interesgarria bihar jokatu da Unben, 18:30etik aurrera.

Asteburuari begira, bestalde, SD Eibarko gizonen talde nagusiak eta 2. RFEF Mailan jokatzen duten bigarren talde biek jokatu dute etxean. Joseba Etxeberriaren mutilek Real Zaragoza talde handia hartu dute Ipuruan, eta beste biek SD Logroñes (gizonen) eta Atletico Villalonga (emakumeen) jasoko dituzte Unben.

Zabaldute mendian federatzeko aukera

Klub Deportiboko mendi batzordekoak martitzenean hasi ziren mendiko federatu txartelak tramitatzen, eta egunero 17:30etik 21:00era izango dituzte interesatuek txartela egiteko aukera. Hori bai, ezinbestekoa da Deporrek bazkide izatea eta eskertzen dute “klubaren orritik formularioa inprimatu eta beteta ekartzea”. Inprimakia eta bankuko ordainagiria bulegoan behin entregatuz gero,

“handik 15 egunera gutxi gorabehera jaso ahal izango dute”.

Bestalde, zapatu honetan egingo dute Mendi Batzordekoek urteko azken irteera, mendeurrenoko buzoien multzokoa izango dena. Etxetik ezin gertuago egingo da, gainera: Elgoibarren hasita, Kalamua, Akondia eta Urkotik pasatu eta gero, zabaldute berri den Depor Tabernan egingo duten bazkariarekin amaituko dute.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
Levante Badalona - EIBAR (etzi, 16:00)
- Gizonen 2. Maila**
EIBAR - Zaragoza (bihar, 18:30)
- Gizonen 2. Maila RFEF**
EIBAR B - SD Logroñes (bihar, 16:00)
- Emakumezkoen 2. Maila RFEF**
EIBAR B - Atletico Villalonga (bihar, 12:30)
- Gizonen 3. Maila RFEF**
San Viator **1** EIBAR C2 (jokatuta)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
Bizkerre B - EIBAR C (etzi, 17:00)
- Erregionaleko Gorengo Maila**
EIBARTARRAK - URKI (bihar, 18:30)
- Erregionaleko 1. Maila**
Aretxabaleta C - URKI B (etzi, 18:30)
- Ohorezko Jubenil Maila**
EIBAR - Alaves (etzi, 12:30)
- Jubenilen Nazional Liga**
Bergara - EIBAR B (bihar, 11:30)
- Kadeteen Euskal Liga**
Gernika - EIBAR (etzi, 16:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Kalaka B. Aires - Malape (bihar, 09:00)
- Bar Marem - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

- Gizonen Gipuzkoako 3. Maila**
EIBARTARRAK - Gamon Auzi (bihar, 15:30)

ESKUBALOIA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**
Loyola - MEK EIBAR (bihar, 18:00)
- Gizonen 1. Nazional Maila**
MEK EIBAR - Romo (bihar, 18:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Kukullaga - MEK EIBAR B (etzi, 13:00)
- Gizonen Lurraldeko Liga**
MEK EIBAR B - Hondarribia (bihar, 16:30)
- Gizonen Jubenilen Euskadiko Liga**
MEK EIBAR - Urdaneta (etzi, 11:15)
- Emakumezko Jubenilen Euskadiko Liga**
MEK EIBAR - Bera Bera (bihar, 11:15)

FRRUGBIA

- Emakumezkoen Ohorezko B Maila**
EIBAR - Turia Les Abelles (etzi, 12:00)
- Gizonen Euskadiko Erregionala**
Menditarrak - EIBAR

SASKIBALOIA

- Gizonen Gipuzkoako 2. Maila**
Motelberri - ARTES. JUANTXO (bihar, 16:00)
- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Tecnun - EIBAR (bihar, 18:00)

GIMNASIA ERITMIKOA

- Espainiako Taldeko Txapelketa**
IPURUAko senior taldea (gaur eta bihar)

Deporreko Julen Teranek irabazi zuen Bolunburu Memoriala

Arrateko Olabe zelaian jokaturako Bolunburu Oroigarria krosaren 73. edizioan, Eibarko Klub Deportiboko atletak irabazi zuen proba nagusia, aldi berean proban jokoa zegoen Gipuzkoako txapela janzteko. Ez da lehenengo aldia Teranek probintziako txapela janzten duela, aurretik Arraten jokaturako beste batean ere nagusitu zelako. Oraingoan irabazleak 21 minutu eta 57 segundo behar izan zituen 6.800 metroko distantzia osatzeko, eta 10 segundo atera zion Ruben Ruzafa bigarrenari eta 12 Endika Donnay hirugarrenari. Ainhoa Sanz urretxuarra nagusitu zen emakumezkoen proban, irabazleak 43 segundo kendu zizkion Lara Esteba-



Irabazleak eta antolatzaileak, proben amaieran banatu ziren sariekin.

nez Goierri-Garaiako taldekideari. Guztira bederatzi proba jokatu ziren, maila guztietakoak tartean, eta goizeko 10:30etik eguerdiko

13:30ak arte luzatu zen domeka horretako egitaraua. Klub Deportiboreen mendeurrenak ikutu be-
rezia eman zion egunari.



Hodei Ezpeleta finalaren bila

Eibarko aizkolaria Gabon Zahar egunean Asteasun jokaturako Urrezko Aizkolari Koparen finale-rako sailkatzea izango du helburu domekan Otxandion jokaturako txapelketako azken finalaurrekoan. Berarekin izango dira lehian Ibai Soroa, Eneko Otaño eta Jokin Urretabizkaia.

Herriko lau pilotarik jarraitzen dute Gipuzkoako Banakako azken fasean

Probintziako eskuz banakako txapelketa azken fasean den honetan, Klub Deportiboko lau pilotari final zortzirenetara iritsi dira. Gaur Astelenan, 19:00etatik aurrera jokatuko du euretako batek: jubenil mailako Azpiliketak (argazkian) Billabonako Behar Zana klubeko Zufiria izango du aurkari. Partidu ofizial horren aurretik, dena dela, binakako lagunartekoarekin hasiko da jaialdia 18:00etan, jubenil mailakoekin ere: Segurola-Urkiaga vs Amillategi-Gisasola.

Gipuzkoako txapelketan jarraitzen duten beste hiru eibartarrek etxetik kanpo jokaturako dituzte euren partiduak: Amuategi jubenilak Ataunen, bertako Lopezen kontra; Agirresarobe seniorrak Tolosako Beotibarren bertako Bidezabalen aurka; eta Ibarra seniorrak hu-



rrengo asteburuan ahaleginduko da kanporaketa gainditzen.

Deportiboko eskolartekoei dago-kienez, bihar Elgoibarko frontoian arituko dira Debarroko alebin mailako pilotariak, euren arteko lehen faseko azken jardunaldian.



Eibar Rugbyren lidergoa jokoan izango da Unbeko domekako lehiari

Domeka eguerdian emakumezkoen Ohorezko B Mailako liga txapelketa eutsiko diote berriro gure herriko klubaren talde nagusikoek. Goren-goreneko partidua izango dute aurrean, gainera, orain arteko partidua guztiak irabazita 14 puntu-rekin dauden Turia Les Abelles eta Eibar Rugby Taldea izango baitira nor baino nor. Partidua eguerdiko 12:00etan hasiko da. Hurrengo asteburuan, bestalde, Javi Aguadok prestatzen duen taldeak Burgosen jokatu du, bertako Pingüinas Rugbyren aurka.

Kalamuako Doha Srrhir Espainiako Kopan

Kalamuako ordezkariak emakumezkoen 63 kilotik beherako mailan borrokatu zuen. Kadete mailako Doha Srrhir-ek esperientzia bereganatzen jarduten du horrelako lehiaketetan, Espainiako Kopako

moduko torneoetan. Oraingoan, lehen borrokaldian galdu ondoren, ezin izan zuen borroka gehiagorik egin, errepekarik ere ez zuelako izan. Hala ere, Doha Srrhir-ek denboraldi bikaina dihardu egiten.



Matsaria kalea 10-2°

Eibar

Tel. 623441405

grabadoslaser2d@gmail.com



**Grabados
LASER 2D**

www.grabadoslaser2d.com

Garaikurrak, dominak,
larruzko etiketak, QR
kodeak egurrean...



IX. Gilda Lehiaketa egin da aste honetan

Herriko 15 taberna aritu dira nor baino nor IX. Gilda Lehiaketan martitzenean hasita atzora arte. Epaimahai-kideek taberna horietako gildak probatu eta baloratu dituzte hiru egunetan eta ebazpena datorren astean emango dute ezagutzera. Hori bai, Iosu Mugerza, Xabier Albizu eta Mireia Alonso epaileek aurreratu dute aurten ere oso maila altua egon dela, gilda tradizionalen artean zein berritzaileetan. Aurkezpena, originaltasuna, zaporea eta berritzailetasuna hartu dituzte aintzat gildak baloratzeko orduan.

Sariei dagokienez, epaimahaiak bi emango ditu, gilda tradizional onenari bata eta berritzaileenari bestea,

sari bakoitza 150 eurokoa; eta herritarrek ere gehien gustatu zaien gilda sarituko dute, hori ere 150 eurorekin. Gainera, botoa eman duten herritarren artean bi laguntzat asteburuko egonaldia zozketatuko da.

Gilda Lehiaketa ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen du Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan, herriko taberna-giroan ere euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin.

Hauek izan dira aurtengo edizioan parte hartu duten tabernak: Akara, Ametsa, Baco Leku Ego-Gain, Baco Leku Urkizu, Banaka, Baratze, Bossa, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Lusai, Nuvola, Topa-Leku eta Trinkete.

Ione Gorostarzu izan da abenduko Harixa Emoten saioan

“Ez da erditzea” poema-bilduma-rekin etorri da Eibarrera idazle berastegierra Harixa Emoten literatura taldean parte hartzera. Bertako kideek liburuari buruzko galderak eta iruzkinak egiteko aprobetxatu zuten Ainhoa Aldazabalek gidatutako saioa. Hurrengo urtarrilaren 14an izango da; ordurako Arantxa Urretabizkaia idazlearen *Bidean ikasia* irakurriko dute.



Pizza-tailerra familia berbalaguntzat

Gaur, barixakua, pizza-tailerra eskainiko die ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familiei. Ortutik Ahorra elkarteak emango du sukaldaritzsa-saioa eta, bertan, pizza osasungarri eta ekologikoak egiten ikasiko dute haur zein helduek.





BIDEOA ►

zarelakogara

BIDEOA
IKUSTEKO

Nara Goikoetxea, Arrate Valenciaga eta Helene Otaduy elkartu ditugu orainoan, bi belaunaldi ezberdin Eibarko komertzioaren inguruan jarduteko. Gertutik bizi dute hirurek gure herriko merkataritza: Arratek urte askoan egin du lan dendan, eta Narak eta Helenek euren familien bidez ezagutu dute jendaurrean lan egitea zer den. Merkataritzaren iraganaz eta orainaz hitz egin digute, euskarak lehen zuen eta gaur egun duen presentziaz, lehen hitza euskaraz izatearen garrantziaz... Eta beste hamaika kontu azaldu dizkigute.

Egin zaitez bazkide!

SOLEDAD Y SOLEDADES



Liburu berria aurkeztuko du Juan Sanchez Vallejok

Astelehenean aurkeztuko du Juan Sanchez Vallejok bere lanik berriena, *Soledad y soledades* izenburukoa. Aurreko liburuak bezala, Octubre Negro argitaletxearekin kaleratu du, eta psikiatra eibartarrak Portalean azalduko ditu lan berri honen nondik norakoak, 19:00etatik aurrera. Buru-osasunari buruzko beste liburu batzuk argitaratu ditu aurretik ere, hainbat arlori buruzko bere ezagutza eta ikuspegia partekatzeko, eta lan honetan gaur egungo gure gizartean oso hedatuta dagoen gaitzari buruz aritu da, ezustean eta nahi gabe etortzen den bakardadeak eragiten dituen gaixotasunak sakonki aztertuta.



Islandiako emakumeei buruzko bideo-forum saioa

Gaur egingo da Pagatxa emakumeen elkartearen bideo-forum saioa, 18:00etatik 19:30era Andretxean. *Emakumeen Istorioak* egitasmoaren baitan, Islandiako emakumeak (1975) eta herrialdea geratzea lortu zuen beraien greba izango dira protagonista. Bideoa ikusi eta, jarraian, Patricia Perex Cotok dinamizatutako solasaldia egingo dute. Sarrera librea da.



Indalecio Ojangureni eskainitako erakusketa

Atzo inauguratu zuten *Indalecio Ojanguren 1887-1972* izenburuko erakusketa Portalean. Urteko azken erakusketa izango da, eta Klub Deportiboaren Argazki sailak mendizale eta argazkilari eibartarrari eskaini nahi izan dio, "Klubaren mendeurreneko ospakizunen azken egunekin bat eginez". Ojangurenen argazki esanguratsuenen kopia, argitaratu gabekoak, jatorrizkoak, eta haren familiakoei esker gorde diren objektu pertsonalak ikus daitezke. Urtarrilaren 12ra arte bisitatu daiteke, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Alberto Ibañezen artelanak gaurtik aurrera ikusgai

Gaur 18:30ean inauguratuko du *Paisaia eta aztarna* izeneko erakusketa Alberto Ibañezek. Artistaren berbetan, "Abrako badiaren ingurunean inspiratutako nire azken lanen bidez ikuslearekin konektatzea da erakusketaren helburu nagusia. Zerumugaren, lurra- ren, itsasoaren, atmosferaren eta paisaiaren aurrean sentitzen dudana lilurak definitzen eta markatzen du nire obra, oihal eta eskulturetan aurkeztutako lanetan aztarna ikusgarriak erakutsiz". Urtarrilaren 12ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian.



Itsaspeko zinemarekin gozatu eta ikasteko aukera

Donostiako CIMASUB Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren antolatzaileekin elkarlanean, Eibarko Klub Deportiboko Urpekaritza Batzordeak Cimasub Tourra antolatu du gure herrian. Horrela, eguaztenaz geroztik, Donostiako jaialdian saritutako lanak eskaini dituzte arratsaldero Coliseo antzokian, dohainik, eta gaur izango da azken proiektzioa, 19:00etan. Hirugarren emanaldi honetan emango dituzten lanak hauek dira: *Red Alert On Corals* (Olivier Bourgeois, Emma Josefina Pettersson), *Raja Ampat. The last paradise* (David Galvañ Fernández), *A Truly Plastic Neutral Fishery* (Pepe Brix), *Magic of the Macroverse* (Alfred Schaschl), CIMASUB 2024ren argazkirik onenak, eta *Heart of the Sea* (Shireen Rahimi).

Aurreko astean Eibarko Klub Deportiboan egindako aurkezpenean azaldu zutenaz, aurtengo goiburua *Trudi bakoitza, konpromiso bat. Begirada bakoitza, aukera bat* da, "jaialdiak, ikusleak liluratzeaz gain, gure itsasoak eta itsas bizitza babesteko beharrari buruzko hausnarketak sakona sorrarazi nahi du eta". Zentzu horretan, txikienentzat *Itsaspeko Txikizikloa* eskaintzen dute, bi formatutan: "Herriko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila ikasten ari direnekin aritu gara oraingo honetan. Berrehun bat neska-mutilek hartu dute parte zinea eta hitzaldi didaktikoak uztartzen dituen saioan, eta gazteei itsasoko biodibertsitatea zaintzearen eta ozeanoarekiko maitasuna sustatzearen garrantzia erakustea da asmoa. Ildo berean, bihar 12:00etan, familientzat pentsatutako saio irekia egingo dugu Coliseon". Zine-emanaldiekin batera, bi erakusketa prestatu dituzte: CIMASUB Argazki Lehiaketako irudi ikusgarriak Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan ikus daitezke, domekara arte. Eta Eibarko Klub Deportiboaren lokalean, berriz, Deporrek urpekarien argazkiak bildu dituzte. Abenduaren 30era arte joan daiteke ikustera.



Liburua aurkezteko tailerra egingo dute bihar arratsaldean

Gau beltza, Oriar jauregiko misterioa dela liburua aurkezteko tailerra egingo dute bihar Eneko Garmendiak, Maria Angeles Garranchok eta Nagore Sanchezek, Adarabar erabilera anitzeko gunean (Eulogio Garate 3, beheka), 17:00etan. ZuNonHanDA! egitasmoari esker, 59. Durangoko Azokan plazaratutako nobedadeen sortak Euskal Herri osoko 66 liburu saltokitan izango dira, urtarrilaren 19ra arte, eta horietako 23 dendatan liburu bat aurkeztuko da, idazlea bertan dela. Beraz, abenduan zehar, Durangoko Azoka ibiltaria izango da martxan, hartzaileen herrietara zuzenean ailegatzeko.

Akuarela tailerra abenduaren 28an

Santi Entrena Eibarko Artisten Elkarteko kideak akuarela tailerra eman- go du abenduaren 28an, 11:00etatik 14:00etara, Ipuruako merkatu plazan. Saioa dohainik da, baina materiala norberak eramatea eskertuko da.



Ricardo Aldama Arte Ederretako irakasleak hitzaldia emango du

Artisten Elkartearen esku- tik, martitzenean hitzaldia emango du Ricardo Aldama, Portalean, 18:00etatik 20:00etara. Pinturan aditua den Aldamak "emakume margolariak historian zehar" izango ditu hizpide eta sarrera librea da.



Ixotu euskera!

Eguraldi txarrari aurre eginez, euskaltzale ugari egin zuen bat Euskararen Egunerako Eibarko Euskalgintza taldeak antolatutako ekitaldiekin. Gazte eta helduen mintzodromoen atzetik etorri zen eguneko ekintza nagusia: Ixotu euskera! *Ez dein argixa emetau* goiburua hartuta "Euskal Herrian Euskaraz" abesti ezagunaren bertsoarekin dantza eginez argia eman zioten parte-hartzaileek euskarari. Ospakizun eguna ez ezik, aldarrikapen eguna ere badela gogoratu zuten antolatzaileek: "Oztopo eta erasoen aurrean tinko aldarrikatu nahi dugu Eibarko euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea dugula, eta iluntasunak iluntasun gure hizkuntzari argia ematen jarraituko dugu urteko 365 egunetan".

Bideoak gure YouTube kanalean ikusgai



Argazki gehiago gure webgunean



SILBIA HERNANDEZ



**Enrique
Añibarro Zubizarreta**

4. URTEURRENA
2020/12/04

**“Beti izango
zaitugu gogoan”**



- ETXEKOAK -

**Alfonso Pancorbo
Rodriguez** 2024/12/02



ESKERRIK ASKO
une latz hauetan
gurekin egon
zareten lagun eta
famiako guztiol.

**“Batu gintuen maitasunak
bizirik dirau eta hor
izango da partekatutako
oroitzapen bakoitzean”**

- ETXEKOAK -



**Beatriz Urien
Areitiobirichinaga**
2024/11/30

**Gonzalo Aguirre
Jainaga**
2024/08/22



**“Alkarrekin bizitza
osua pasau eta gero,
bata bestiaren atzetik
juan zarie, hutsune
haundixa lagata”**

**Beti egongo zarete
gure bihotzetan**

- ETXEKOAK -

**Iñaki
Larrañaga Aranegi**

7. URTEURRENA 2017/12/12





**“Beti izango
zaitugu gogoan”**

- ETXEKOAK -

**Antonio
Alberdi Atxa**

6. URTEURRENA
2018/12/08




**“Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza”**

- ETXEKOAK -



10

**DESBERDINTASUN
DAUDE BI IRUDI
HAUEN ARTEAN**



				8	2		
			9	4		7	
	6	2	7		9		3
9	8					6	
		4			3		
	3					2	8
2		3			7	6	9
	5			6	9		
		9	5				

U	S	R	P	E	R	C	I	O
R	P	Z	A	R	E	L	I	N
S	S	B	Z	I	L	E	V	Z
R	E	J	S	O	V	A	V	C
K	S	C	O	D	E	N	A	S
S	S	N	A	L	I	C	E	S
R	I	N	C	H	O	R	E	S
K	I	Z	C	H	E	R	E	S
K	I	Z	C	H	E	R	E	S

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

U	S	R	P	E	R	C	I	O
R	P	Z	A	R	E	L	I	N
S	S	B	Z	I	L	E	V	Z
R	E	J	S	O	V	A	V	C
K	S	C	O	D	E	N	A	S
S	S	N	A	L	I	C	E	S
R	I	N	C	H	O	R	E	S
K	I	Z	C	H	E	R	E	S
K	I	Z	C	H	E	R	E	S

soluzioa

		4		6		8	
1	8			2	3		
				5			4
8	7			5	2		
		3	6			7	1
4			6				
		8	7			6	2
3		8			9		

Abenduak 13/19

BARIXAKUA 13

OMENALDIA

18:00 Kontxa Laspiur Zabalari omenaldi herrikoia. Dokumental laburtuaren proiektzioa, "Lehenago eta oraingo euskararen saihebidet" (Xabier Amuriza), bertsoak (Trunboi eta Mikel Arrillaga), dantzak (Kezka dantza taldea), oroigarriak, pintxoak. Ipuruako merkatu plaza.

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen Istorioak: Islandiako emakumeak (1975). Bideoaren emanaldia eta solasaldia, Patricia Perex Cotok dinamizatuta. Sarrera libre. Andretxea.

ITSASPEKO ZINEMA

19:00 Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa. Doan. Coliseo.

AITORTZA

19:00 "Txopitea eta Pakea" saria emango dio Udalak Eibarko Klub Deportiboari. Udaletxea (batzar aretoa).

ZAPATUA 14

AZOKA

10:00/14:00 Gabonetako bigarren eskuo azoka. **11:30/14:00** Tailerra: "Egin gabonetako apaingarriak material birziklatuarekin". Doan. Errebal Plaza.

HOBBEA TOPAKETA

10:00/17:00 Artisau erako ogi ekologikoa-HoBBea proiektuaren inguruko jardunaldia. Errebal Plaza.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:00 Gabonetako azoka. Sagardo, gazta eta ogi dastaketa (goizez bakarrik). Ipuruako merkatu plaza.

ITSASPEKO ZINEMA

12:00 Txikiziklo familiei zuzendutako saioa. Doan. Coliseo.

IGERIKETA

16:00/20:00 XXXV. Gabon Kopa Igeriketa Lehiaketa. Ipuruako igerileku estalia.

LIBURU-AURKEZPEN TAILERRA

17:00 "Gau Beltza, Oriar jauregiko misterioa dela", Eneko Garmendia, Mari Angeles Garrancho eta Nagore Sanchezekin. Adarabar espazioa.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 15

PALESTINAREKIN ELKARTASUN EGUNA

10:00/13:00 Dastaketa, haurrentako jolasak eta talde-argakia. Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak antolatuta. Errebal Plaza.

AZOKA

11:00/14:00 Gabonetako azoka. Ipuruako merkatu plaza.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 16

LIBURU AURKEZPENA

19:00 Juan Sanchez Vallejoren "Soledad y soledades". Portalea.

MARTITZENA 17

HITZALDIA

18:00/20:00 "Las pintoras en la historia", Ricardo Aldamaren eskutik. Eibarko Artisten Elkarteak antolatuta. Sarrera libre. Portalea.

EGUAZTENA 18

GABONAK

10:00/14:00 Goienetxe Fundazioaren Garagunekoek egindako eskulan eta Gabonetarako apaingarrien salmenta-postua. Untzaga (Guridi aldamenean).

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Eibart Gabonetako 20. artisau azoka. Untzaga.

ABENDU ANITZ

18:00 "Chica seria y responsable". Etxeko eta zaintza lanak ikusarazten. Doku-foruma, SOS Arrazakeriaren eskutik. "Ispilua" erakusketaren aurkezpena. Sarrera libre. Andretxea.

BILERA IREKIA

19:00/20:00 Biler irekia. Ipuruako merkatu plaza.

EGUENA 19

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Eibart Gabonetako 20. artisau azoka. Untzaga.

DANTZA

18:00 Kaxaren Gabonetako dantza emanaldia. Errebal Plaza.

ABENDU ANITZ

19:00 "Atzoko eta gaurko migrazioak", ZAS! Zurrumurruen aurkako sarearen eskutik. Jon Maia, jatorri anitzeko eibartarrak eta sorpresa ugari. Sarrera libre. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 15era arte:

- "CIMASUB Argazki Lehiaketara aurkeztutako argazkiak". (Topaleku)

Abenduaren 30era arte:

- Deporreko URPEKARIEK egindako argazkiak. (Deportiboaren Taberna)

Urtarrilaren 12ra arte:

- "INDALECIO OJANGUREN 1887-1972", argazki erakusketa. (Portalea)

- ALBERTO IBAÑEZ-en

"Paisaia eta aztarna".

(Portalea)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 20:00
- **16an:** 19:30

“¿Quién es quién?”
KOMEDIA



2024/Espainia/95'
Zuzendaria: Martin Cuervo
Protagonista: Kira Miró,
Elena Irureta, Salva Reina
Zine familiarra/Remakea

2 ARETOA

- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00
- **16an:** 19:30

“¿Es el enemigo?”
KOMEDIA



2024/Espainia/100'
Zuzendaria: Alexis Morante
Protagonista: Oscar Lasarte,
Carlos Cuevas, Natalia de Molina
Drama/Biografikoa

1 ARETOA

- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **16an:** 19:30 (Antzokia)

“Kraven the Hunter”
AKZIOA



2024/AEB/119'
Zuzendaria: J.C. Chandor
Aktoreak: Aaron Taylor-Johnson,
Russell Crowe, Ariana DeBose
Komikia/Superheroiak

ANTZOKIA

- **14an:** 17:00
- **15ean:** 17:00

“SuperKlaus”
ANIMAZIOA



2024/Espainia/88'
Zuzendaria: Andrea Sebastián
**Gabonak/Superheroiak/
Fantastikoa**
EUSKERAZ



Mikel Fernandez Hernandez

5. URTEURRENA
2019/12/21

**“Beti eruango
dogu zure
irribarría gure
bihotzetan”**

- ZURE LAGUNAK -



●●●

FUNEUSKADI

Funeraria Mugica

●●●

FUNERARIA MUGICA

Funeraria



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otsola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kivillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasako hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeispina, 18</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ADUR**. Gaur 2 urte betetzen dozuz eta. Patxo haundi bat famelixaren guztiaren partez.



Zorionak, **HEGO!** Gaur 8 urte betetzen dozuz eta! Musu potolo bat Markel eta etxekuen partez!



Zorionak, **BIHOTZ**, hillaren 7xan 8 urte bete zenduaz eta. Zure famelixaren eta, batez be, Amets eta Hodeiren partez.



Zorionak etxeko mutil haundixari! Hillaren 6xan urtiak bete dozuz, **AITOR!** 10 muxu haundi famelixaren guztiaren partetik!



Zorionak, **JON**, hillaren 7xan 6 urte bete zenduaz eta. 6 besarkada haundi etxeko guztion partetik.



Zorionak, **MARTIN**, bixar 8 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Nikolen partez.



Zorionak, **PEIO**, oin dala 7 urtetatik abenduaren 6xan ospatzeko arrazoiak emoten deskuzuz eta. Musu erraldoiak etxekuen partez.



Zorionak, **NAHIA!!!** Hillaren 4an 6 urte bete zenduaz eta. Besarkada eta musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANDER!** Atzo 8 urte bete zenduaz eta! Patxo potolo bana famelixako danon partez!



Zorionak, **MAIDER**, gaur 7 urte egitten dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, zure anaia Jonen partez.



Zorionak, **ALBA!!!** Hillaren 16xan 7 urte egingo dozuzelako. Asko maitte zaittugu. Zure famelixia.



Zorionak, **AIA**, bixar urtetxua beteko dozulako! Jarraittu hain maitagarrixa izaten. Patxo pillo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **URKO**, eguaztenian 9 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, zure anai Mikelen partez.



Ongi etorri, **EKHIA!** Hillaren 9ttik gure artian zagoz eta. Zorionak Ehari eta Gorkari, eta etxian zure zain egon diran Suhar eta Xareri.



Zorionak, **MALEN!!** Gaur 8 urte!! Disfrutau topera!! Asko maite zaittugu, printzes.



Zorionak, **SARA!** Astelehenian 5 urte egin zittuan etxeko neska haundixari patxo bat, famelixako guztion partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.3. Konpartitzeko

- Pisukide baten bila nabil Eibarren. enorahenriquezsistia-ga@gmail.com

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Tailer mekanizatu salgai. 667895597.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da arratsalde garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 643505662.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko. 642701710.
- LH ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688621149.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643766267.
- Neska eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta sukaldari bezala. Baita asteburuetan ere. 673538021.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643074369.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta jaiegunetan ere. 669181717.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarak egiteko. 638413158.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko. Orduka edo internan. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak zaintzeko. 649623854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauz ere. Orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 631907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642044618.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 604205271.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 613215006.

4.2. Langile bile

- Ilea pandegirako laguntzailea behar da. Jornada erdirako. 619928881.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Aulki bihur daitekeen ibiltaria eta barruko opari aldagarria saltzen ditut. 150 euro. 649105442. Elena.



BIRZIKLATU

latak, briak eta plastikozko
ontziak edukiontzi horian eta
egin bat ekonomia zirkularrarekin



DebaBarrena
Denona da, izan garbi



ecoembes

Lankidetzaren indarra

Errekatxu Berri

BIZIGUNEA



BISITA EZAZU GURE PISU PILOTU BERRIA

3 logelako etxebizitzak: 285.000€tik aurrera



Azken etxebizitza, garaje eta lokalak eskuragarri Eibarko erdigunean



Informa zaituz
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir